

Hego Poloko irudiak

Angel Navasen eskutik, gaur ▶ 6



Kultur ekitaldi ugari martxo osoan Tolosan

DENETIK ▶ Bihar, Elkartasun Azoka, erakusketa inaugurazioa eta 'blues' kontzertua izango dira

MUSIKA ▶ Benito Lertxundik disko berria grabatuko du Leidor zineman hilaren 11n ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Ekitaldi ugari martxoaren 8a dela-eta

Emakumeen Eguna oroituz, erakusketa, antzerkia, irteera... ▶ 4

ALEGIA ▶



Epaituaren osaba. N.LATABURU

Larrañaga «mugan» dagoela dio familiak

Heriotz zigorra jarri diote Filipinetan hiru delitugatik ▶ 5



Etzi Gerontologikoaren aldeko manifestazioa izango da

TOLOSA ▶ Gerontologikoaren aldeko plataformak eta egoiliarren senideek manifestazioa deitu dute etzirako, larunbata, eguerdiko 12:00etan Triangulotik abiatuta. Egoiliarrek «Tolosatik ez atera behar izaten» saiaturiko dela Udala azaldu du alkateak. Zentroko erabiltzaile eta senitarteko batzuk zentro hau aukeratu

izanaren arrazoiak agertu zituzten atzo prentsaren aurrean. Denek «atentzio ona», «zerbitzu handia» eta «mesedea» aipatu dute, itxi beharrean horrelako gehiago ireki behar dituztela esan dute eta bere borondatez beste zentro batera inork ez duela joan nahi erantsi dute, «pena handia» ematen dielako. J.SAIZAR ▶ 3

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **UZTARTZA aterpetxe - jatetxean 4 lagunentzako afari eder bat zozketatuko dugu**



ARETO FUTBOLA ▶

Partida eta emaitza ikusgarria

10-4 irabazi dio Hegoalde Fotics Zaragozari, eta grina berreskuratu du

L. MONTES

Partida ikusgarria jokatu zuen Hegoalde Fotics Zaragozaren aurka. Gol zaparrada ere ikusteko modukoa izan zen: 10-4 irabazi zuten Tolosakoek.

Oso ibilbide desberdinak izan dituzte bi taldeak denboraldi honetan: Zaragozakoek oso ondo hasi zuten Liga eta lehen itzulian ere txukun aritu dira; dena den, lesioak eta bajak direla medio, ahul samar da taldea azkenaldian. Hegoalde, aldiz, gaizki hasi zuen denboraldia, eta lehen itzulia

oso irregularra izan da; orain, ordea, beste denboraldietako joko ona eta grina berreskuratu ditu.

Hasieratik hautsi zuten partida tolosarrek: bi minututan hiru gol egin zituen, eraso joko bikaina eginez, eta aurkaria ezustean harrapatuz. «Zaragozakoek ezin izan zuten erantzun, nahiz eta erasoan etengabe saiatu eta atzean ere txukun aritu», azaldu dute Hegoaldeko ordezkariek. 5-1 amaitu zen lehen zatia.

Tankera berekoa izan zen bigarrena. Tolosako huts egi-

tez eta kontzentrazio ezaz baliatuz, hiru gol sartu zituzten hasieran Zaragozakoek. Segituan esnatu ziren, baina, Hegoaldekoak: «Partidan sartu ginen berriro, eta azken jardunaldietan erakutsi dugun anbizioa eta gogo nabariak izan ziren berriro Berazubín». Izandako aukera gehienak gol bihurtu zituzten etxeok, eta 10-4 amaitu zen norgehiagoka.

Hegoalde ez du Ligako partidarik jokatu asteburuan, Nerea Salazar, Maider Lopez eta Miriam Arana Euskal Herriko selekzioarekin ariko baitira.



Hegoaldeko jokariak, partida hasi baino lehen. HITZA

HEGOALDE ▶ 10 FOTICOS ZAGOZA ▶ 4

Hegoalde. Zuriarain, Arana, Agirretxe, Azpilikueta, Aldezabal, Salazar, Lopez, Barrio, Prados, Zelaia, Videra, Mayo.

Fotics Zaragoza. Peligero, Tena, Yera, Madrid, Garcia, Aldaz, Hernandez, Alonso.

Golak. 1-0: Salazarrek (01m.); 2-0: Lopezek (02m.); 3-0: Lopezek (02m.); 3-1: Hernandezek (05m.); 4-1: Lopezek (11m.); 5-1: Salazarrek (14m.); 5-2: Garciak (23m.); 5-3: Garciak (27m.); 6-3: Barriok (29m.); 7-3: Salazarrek (32m.); 8-3: Mayok (34m.); 9-3: Barriok (36m.); 9-4: Aldazek (39m.); 10-4: Azpiliketak (39m.).

KULTURA ▶

LEIRE MONTES

Ekitaldiz beterik dator martxoko kultur egitaraua. Erakusketak, helduentzat eta haurrentzat antzezlanak, poesia errezitaldiak, pailazo emanaldiak, azokak, estilo guztietako kontzertuak... Denetik ikusteko, entzuteko eta egiteko aukera aurkituko du tolosarrak, eta kanpotik bisitan etorritakoak. Aukeratzeko behintzat izango da, non-nahi.

ANTZERKIA

'Gertakariak'. Hendaia Hiru Bideak taldeak *Gertakariak* lana antzetzuko du Kultur Etxean hilaren 8an, Emakumearen Egunean, 20:15ean.

Poesia errezitaldia. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, herriko ikastetxeetako gazte txoek poesia errezitaldia eskainiko dute Leidorren, hilaren 18an, ostirala, 18:30ean.

Kukubiltxo. Kukubiltxo taldeak haurrentzako ikuskizuna taularatu du Leidorren, hilaren 21ean, astelehena.

AZOKA

Elkartasun Merkatua. Bihar hasita eta igandera arte, Elkartasun Merkatua jarriko dute Kultur Etxean. Urtero legez, Amaroeko auzo elkarteak antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Jasotako dirua Nikaraguko Malpaisillo herriko emakumeen zentroan proiektu bat martxan jartzeko bideratuko da.

Tolosa Goxua. Produktu gozoen salmenta hilaren 19an, larunbata, izango da, Triangulonan. Herritarrentzat postre

Aukeratzeko, non-nahi

Denetik ikusteko, entzuteko eta egiteko aukera izango da egunotan, martxoko kultur egitarauaren aitzakira

lehiaketa ere antolatu du Udalak.

ERAKUSKETAK

Carmelo Ortiz de Elguea. Margolari gasteiztarraren azken lanak larunbata arte egongo dira ikusgai, 17:30etik 20:30era, Aranburu Jauregian. Egindako bidaietan oinarritutako koardroak dira.

Aitor Ruiz de Egin. Hilaren 11n zabalduko dute Ruiz de Eginoren eskultura erakusketak, Aranburu Jauregian. Bere lanak apirilaren 16a bitartean egongo dira bertan ikusgai.

Mikel Azpillaga. 19:30ean zabalduko dute, bihar, Mikel Azpillagaren pintura erakusketa, Aranburu Jauregian. Apirilaren 23a arte bisiatu ahal izango da.

Alpino Uzturre. Alpino Uzturre mendi elkarteak antolatutako lehiaketan saritutako argazkiak ikusgai izango dira, hilaren 11tik 18a bitarte, Kultur Etxean.

MUSIKA

Travellin' Brothers. Etzi, larunbatean, joko du Travellin' Brothers *blues* taldeak Fronton kafetegian. 23:00etan hasiko da kontzertua.

Benito Lertxundi. Abeslari oriotarrak disko berria grabatuko du Leidorren. Hilaren 11n,



Benito Lertxundi diskoa grabatuko du Leidorren, hilaren 11n. HITZA

ostirala, eskainiko du emanaldia, 22:30ean.

Musika Eskolako ikasleak. Eduardo Mokoroa Musika Eskolako ikasleen kontzertua izango da hilaren 18an, ostirala. Gorosabelgo entzutegian. 19:30ean hasiko da emanaldia.

PAILAZOAK

Pirritx eta Porrotx. Etzi, larun-

bata, eskainiko dute beren ikuskizuna Pirritx eta Porrotx pailazoen, 17:00etan, Leidorren.

BESTERIK

Gazte Topalekua. Larunbatero eta igandero dago zabalik Gazte Topalekua, 16:30etik 20:30era, Kultur Etxeko areto nagusian.

Zine-klubarik ez, oraingoz

Zine-klubaren falta somatuko dute askok martxoko kultur egitarauan. Izan ere, eta diru arazoak direla medio, emanaldiak bertan behera gelditu dira.

Jose Mari Lopetegi antolatzailerako baten esanetan, «zorrik kitatzeko» hartu dute erabakia: «Gaur egun gastu batzuk ditugu, eta aurrera jarraitu ordez, zorra guztiak kitatu arte emanaldirik ez eskaintzea erabaki dugu».

Udalaren diru laguntza jaso dute zine-klubekoek, eta Foru Aldundiarena, «urtero moduan, apirilean» iritsiko zaie. Beste urtetan «hobeto ibili» direla diote, eta aurtun «gastu gehiago» izan dituztela. Saiotara jende guxtiago joan izanak eragin du defizit hori: «Saio batean 100 lagun baino gutxiago elkartzen bada, jada arazoa da guretzat. Izan ere, gastuek bere horretan jarraitzen dute: filmagatik ordaindu, aretoaren alokairua...». Abendu bi saioek oso jende kopuru eskasa izan zuten, eta beste hiru eratorre ere Leidor ez da ohi bezala bete. Emanaldien «kalitate ona» azpimarratu dute antolatzaileek: «Ez dakigu zergatik gertatu den. Jendeak egingo duena aurreikus-tea oso zaila da».

Hala ere, «erabakia ziurrenik behin-behinekoa» dela gaineratu du eta, Leidor itxi aurretik, bizpahiru emanaldi antolatzea espero dute. ◀

HAUTESKUNDEAK ▶

Gai sozialak jorrazteko sinadura bilketa

Politikagintzan herritarren parte-hartzea bermatzea eta gai sozialak Eusko Legebiltzarrerera eramatea dira Gipuzkoako Independenteen asmoak. Horretarako 6.000 sinadura bildu nahi dituzte martxoaren 11rako EAEko hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko eta herri handienetan udaletxeetan ari dira horretan, tartean Tolosako udaletxean, udal ordutegian.

KIROLA ▶

Joseba Ormazabal Pierra Menta probara

Hilaren 9tik 12ra mendiko eskian munduko proba ospetsuena den Pierra Mentan parte hartuko du Aralarko Adiskideak taldeko Joseba Ormazabal tolosarrak, Frantziara. Otsailaren 20an Espainiako Txapelketan, Baqueira-Bereten zazpigarrena izan zen. Euskadiko Kopako 3. proba zen eta lehen euskalduna izan zen. Asteburu honetan Andres Regil proba du.



Joseba Ormazabal. J.SAIZAR

HAUTESKUNDEAK ▶

Aukera Guztiak hautesle elkarte sortzeko deia

Tolosako notariotzetan (San Frantzisko 7, 1.a eta Nafarroa etorbidea 12, 3.B) ari dira bilitzen Aukera Guztiak hautesle elkarte sortzeko sinadurak. Elkarte honek eskubide zibil eta politikoen aldeko milaka sinadura behar ditu apirilaren 17ko EAEko hauteskundeetan zerrrenda bat aurkeztu ahal izateko. Bilbon egin dako aurkezpenen hainbat pertsonaia ezagun izan zen.

HAUTESKUNDEAK ▶

Haitesle errolda ikusgai dago udaletxean

Apirilaren 17an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara begira, hautesle errolda udaletxean ikusgai dagoela jakinarazi dute. Beheko solairuan daude eta hilaren 7a bitarte egingo dira. Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, Nafaren, pasaportearren edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu behar da estatistika departamenduan (2. pisua).

GIZARTEA ▶

JOXEMI SAIZAR

Gerontologikoaren aldeko plataformak manifestazioa deitu du larunbaterako. Gerontologikoa ez itxi izango da leloa eta 12:00etan abiatuko da Triangulotik. Lelo hori jasotzen duen kartela jarriz herriko hainbat dendak eta tabernak erakutsi duten elkartasuna eskertu nahi du plataformak.

Jokin Bildarratz alkateak azken udalbatzarrean, galderen txandan, Foru Aldundiarekin elkarrizketa berreskuratu dutela eta Udalaren helburu nagusia «egoilarrak Tolosatik ez atera behar izatea eta Iurreamendin gelditzea» dela azaldu zuen. Aldundiak itxierarekin atzera egiteko asmorik ez duela erantsi zuen.

Atzo, Gerontologikoko zerbitzuak era batera edo bestera erabiltzen dituzten pertsona batzuk zentro hau zergatik aukeratu zuten eman zuten ezagutzera prentsaren aurrean.

JOSE LUIS
SENITARTEKOA

«Atentzio oso ona izan zuten amak»

«Ama eguneko zentrorra ekaritzen hasi ginen beharra zuelako. Goizeko hamarretatik arratsaldeko zazpitarera egoten, bertan bazkalduz eta familiarentzat laguntza handia zen. Atentzio oso ona zuen. Bi urte horrela egin zituen, baina bere gaixotasunak okerrera egin zuen eta ingresatu behar izan genuen. Giza berotasuna zuen, familian bezala zegoen lehenetik ezagunak zituelako. Edozein unetan bisitan etortzeko eta berarekin herrira paseatzera ateratzeko aukera genuen. Ez zen trauma bat izan inorenzat. Beste lau urte egin zituen horrela, denok oso gustura, hil arte. Ez dago dirurik zerbitzu hori ordaintzeko».

Etzi, Gerontologikoaren aldeko manifestazioa deitu dute

Erabiltzaile eta senitarteko batzuk zentroa zergatik aukeratu zuten azaldu dute

SANTI
LANGILEA ETA SENITARTEKOA

«Ez dago horrelako beste zentrorik»

«26 urte daramat hemen lanean eta ondo ezagutzen dut. Oso berezia da: egoitza eta etxea da hau. Ez dakit horrelako beste bat badagoen Gipuzkoan, agian Eibarkoa. Zerbitzu ugari eskaintzen ditu eta etortzen denak errepikatu egiten du. Erabiltzaileak direnek egoiliar bezala buka dezakete».

ANTONIO
EGOILIARRA

«Pena handia dut alde egin behar dudalako»

«Bost urte eta erdi daramat hemen eta oso ondo egon naiz beti. Orain aldaketa hauekin tristetu naiz eta gorabehera handiak etorri zaizkit. Pena handia dut alde egin behar dudalako. Aldaketa txarrerako izango da».

JAVIER
JANGELAREN ERABILTZAILEA

«Zerbitzu handia egiten dit jangelak»

«1a 80 urte dauzkat eta bakarrik bizi naiz. Laguntza badut familian, baina jangelak zerbitzu handia egiten dit: etxean ez dut janaria prestatu, trasteak jaso eta garbitu behar. Erraztasunak besterik ez dizkit ematen».



Erabiltzaile eta senitarteko batzuk prentsarekin bilduta. J.SAIZAR

MERCEDES
YOGA IKASLEA

«1a 100 lagun gaude; mesede egiten digu»

«Zortzi urte daramat yoga ikastaroetara joaten. Lau talde eta ia 100 lagun gaude guztira. Oso gustura gaude eta klase-rik ez galtzen saiatzen gara beti, mesede handia egiten digulako yogak».

ALBERTO
TXILABA ELKARTEKO KIDEA

«Zentroak itxi beharrean, ireki»

«40-50 bat lagun elkartzen gara Inauterietako konpartsa prestatzeko eta entseatzeko. 18-20 urte ditu taldeak. Horrelako zentroak itxi beharrean, gehiago ireki beharko lituzteke. Alkatea egoiliarren irteerak ikustera gonbidatuko nuke: erdi negarrez, bihotza goibelduta...».

«Aldundiarekin eta Udalarekin bilerak izan ditugu —beti guk eskatu dugulako— eta argibide handirik ez digute eman. Urtarrilaren hasieran itxieraren zurrumurruak hasi ziren eta otsailaren 18an publiko egin zuten. Aspaldi erabakita zuten eta botata utzi gaituzte. Hasieran Donostiako Sanitas zentro pribatura eraman behar zituzten denak, Miramonera. Orain, ez dakit nondik, Iurreamendin plaza gehiago atera dituzte, obrak geldituta. Bere borondatez, inork ez du kanpora joan nahi. Hemen oso pozik gaude eta engainatuta eramanen ari dira. 200 eta piko sinadura bildu eta inguruko udaletxeetan sartu ditugu.»

MARI
SENITARTEKOA

«Borondatez inork ez du kanpora joan nahi»

TOLOSAKO UDALA		
LEHIAKETA		
2005eko otsailaren 24ko Alkatetza Dekretuaren bitartez onartu dira Goien Errotako altzarrien eta ekipamenduaren hornidura lehiaketa bidez kontratatzeko baldintza administratibo partikularrak.		
1.- Helburua: Goien Errotako altzarrien eta ekipamenduaren hornidura, muntaia eta instalazioa.		
2.- Horniduraren aurrekontua:		
1 lotea	Mahaiak eta aulkiak	46.435,39 €
2 lotea	Apalategiak	65.932,51 €
3 lotea	Akzesorioak	25.834,39 €
3.-Kontratuaren iraupena: Hornidura entregatu eta jarri behar da 2005eko apirilaren 1etik 15era bitartean.		
4.- Espedienteak ikusteko: Tolosako Udaletxeko Erregistro eta Informazio bulegoan		
5.- Behin-behinekoko fidantza:		
1 lotea	Mahaiak eta aulkiak	928,71 €
2 lotea	Apalategiak	1.318,65 €
3 lotea	Akzesorioak	516,69 €
6.- Behin betiko fidantza:		
1 lotea	Mahaiak eta aulkiak	1.857,42 €
2 lotea	Apalategiak	2.637,30 €
3 lotea	Akzesorioak	1.033,38 €
7.- Eskaintza egiteko tokia eta epea: Tolosako Udaletxeko sarrera Erregistroan, Plaza Zaharra 6-B. 2005eko martxoaren 17ra eguendiko 13:00 arte		
Tolosa, 2005eko martxoaren 2an		
ALKATEA		

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Ernialdeko Udaltalde 21 eta proposamen bat

Anoetarrok Auzolanean herri plataformatik, ingurumenaren alorrean, Udalaren jarraera aztertuz, Ernialde Udaltalde 21aren inguruko iritzia eman eta proposamen bat luzatu nahi dugu.

Ernialdeko Udaltalde 21. Anoetarrok Auzolanean herri plataformak iraunkortasun-

na du helburu. Hau da, egungo beharrian asetu behar dira biharkoenak ere kontuan hartuz. Horretarako ingurumenaren babesa, ondarea, ekonomia eta gizarteko ongizatea integratu behar dira denon partaidetza bultzatuz. Iraunkortasunaren alde, Tolosaldeko beste herriekin elkarlanean, aurreko legegintzaldiaren amaieran hasi ginen. Urtebete baino gehiagora bada ere, Ernialde Udaltalde 21 osatu dute, zazpi udalerritan, Tokiko Agenda

21 egitasmoa garatzeko. Gizarte, ekonomia eta ingurumen alderdien diagnostiko zuzen batetik abiatzea, benetak Tokiko Ekintza Plana diseinatzea eta gero gauzatzea espero dugu. Horrela, besteak-beste, iraunkortasunaren bidean jasanezinak diren AH-Tren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hondakinen Planaren Erraustegien aurka eginez. Hala gauzak doazen bezala jarraituko dute, orain proiektu hauek jasangarriak direla esanez eta soilik aurpe-

gia zuzitzeko kanpaina zena bait eginez?

Beste proposamen bat. Anoetan dugun ondare naturala liburu batean biltzeko proposamena egiten dugu. Hau da, dugun fauna, landaretza, ura, airea eta lurra bezalako baliabide naturalen egoera jaso eta ezagutu, beratu zaindu eta babesteko.

Ondorio gisa. 2003ko Udaltaldeko Hauteskundetan PNV-EA taldeak «bertako nekazaritza laguntzeko» eta «guztionez bizi kalitate hobetzeko» konpro-

misoak hartu zituen. Udalaren jokabidea aztertuz, ordea, PNV-EA taldeak konpromisoak ahaztu dituen ondorioa ateratzen dugu. Anoetarrok Auzolanean herri plataforma, anoetarron ongizatearen muinean dauden ingurumenaren babesa eta herritarren iritzia errespetoaren alde lanean ari da eta jarraituko du.

INAKI ITURRIOZ ETA MIKEL LARRION
(ANOETARROK AUZOLANEAN HERRI PLATAFORMAREN INGURUMEN BATZORDEREN IZENEAN) ▶ ANOETA

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Emakumearen inguruko ekitaldiak burutuko dira

Eskulan erakusketa, antzerkia, irteera eta pertsonen arteko komunikazioari buruzko tailerrak egingo dira

IMANOL GARCIA

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna dela eta, Zizurkilgo Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Atxulondo kultur etxean, asteartean, hilak 8, Zizurkilgo Eskulan Taldearen eta *Negarra min* erakusketen inaugurazioa egingo da 19:00etan.

Hilaren 11an, ostirala, *Pakita* antzezlanaren eskainiko dute Atxulondon 19:00etan, Kutxa-Gizarte Ekintzaren eskutik. Hilaren 12an, larunbata, irteera antolatu dute *Sos del Rey Catolicora* (Aragoi) eta *Olitera* (Nafarroa). Ibilaldiak 22 euro balio ditu eta izen emateak Aurrera plazako udal bulegoetan eta Kultur Etxean egin behar dira.

Beste ekitaldietako bat emakumeei zuzendutako tailer bat izango da. Pertsonen arteko



2004ko eskulan erakusketa. G.A.

kommunikazioa eta asertibitatea tailerra Nerea Zuazua psikologoak emango du. Hilaren 9 eta 10ean izango da, 19:00etatik 21:00etara. Interesatuak izena lehenbailehen eman behar dute Kultur Etxean edo Aurrera plazako udal bulegoan.

Nerea Zuazua Hitzari azaldu dionez, «komunikazioari buruzko tailerra izango da.

Norberak dituen sentimenduak espresatzeko gaitasuna izatea eta horrekin gustura gelditzea». Beste bati ezezkia esan behar zaionean izaten ohi da komunikazio arazoa sarritan eta tailer honetan landuko den gaietako bat horixe bera izango da. «Ezezkia esan nahi diogunean beste bati, gure beldurrak azaleratzen dira: nola eragingo dioten pertsona horri nik pentsatzen dudana, hase-rretuko den...», dio Zuazua. Tailerra modu guztietako emakumei irekita dagoela dio psikologoak: «Jende batzuk ahalmen gehiago dute sentitzen dutena esateko eta agian pentsatuko dute horrelako tailer baten beharrik ez dutela. Hala ere, interesgarria da ikustea sentimendu horiek esateko dauden modu ezberdinak ikustea».

ADUNA ▶ UDALA

Haika-Segi eta 18/98 auziak salatu ditu Udalak

Aho batez onartu du mozio bat «epai-bidean dauden 42 gazteei babesa» luzatuz

I. GARCIA

Adunako Udaltaldeak Haika-Segi eta 18/98 auzien inguruan mozio bat onartu du aho batez, non «Euskal Herriko 42 gazteren aurka hasi eta datozen hilabeteetan beste ehundaka euskal herritarrek izango duten epaiketarako ozenki salatzen dugu, Euskal Herriari dagozkion eskubide politiko eta zibilen aurkako epaiketarako delako».

Mozioaren testuan azaltzen denez, «Udal honek epai-bidean dauden 42 gazte hauei, bere babesa luzatu nahi die. Era berean kartzelaratuak dauden kideen askatasuna exigitzen du». Adunako Udala «beste behin ere», Espainiako eta Frantziako estatuei zuzentzen zaie, «errepresioa alde batera utzi eta urrats ausartak emanaz, Euskal Herriaren eskubideak errespetatzeko» eskatuz.

ZIZURKIL ▶

Udalak hainbat lanpostu bete behar ditu

Udalak euskara trebatzaileen lan poltsa eratzeko epea zabaldu du hilaren 4a arte. Bestalde, udaltzain laguntzaile plazarako hautaketa probetara aurkezteko epea hilaren 8an amaitzen da.

ANOETA ▶

Batasunak herri batzarra egingo du gaur

Anoetako Batasunak herri batzarra egingo du gaur udaletxean, arratsaldeko 19:00etan. Bertan jorratuko diren gaiak kokapen orokorra eta apirillean 17ko hautakundeak.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako galdera berria:

Sagardo denboraldian zenbat aldiz joaten zara sagardotegietara?



BEHIN ▶ 2TIK 5ERA ▶ 5ETIK 10ERA ▶ 10TIK GORA

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Erakunde ofizialen bultzada eskatu du Larrañaga familiak egoera «azkenekotan» baita

Pako Larrañagari heriotz-zigorra ezarri diote Filipinetan bi nesken bahiketa, hilketa eta bortxaketa egotzita; Auzitegi Gorenaren erabakiaren zain daude

NOELIA LATABURU

«Soka tenk dago oraintxe eta alde batera edo bestera egingo du edozein unetan». Horrelaxe deskribatu du Pako Larrañagak Filipinetako herrialdean heriotz-zigorra ezarri dioten bere ilobaren egoera. Filipinetako justiziak bi neska hiltzea, bortxatzea eta hiltzea leporatu dio Pako Larrañaga euskaldunari, prozesu luze baten ostean. Orain, herrialdeko Auzitegi Gorenaren azken erabakiaren zain dira Larrañaga familiakoak, han bizi diren bere guraso eta anaia zein hemengo senideak: kasuaren berrikuskapen bat eskatzen duen apelazioaren onarpena eta epaiketa duin bat izatea, edota heriotz-zigorren berrespena.

Larrañagaren errugabetasuna frogatzeko lanetan erakunde ezberdinak aritu dira urte hauetan zehar. «Asko eskertzen dugu leku guztietatik jasotako laguntza, baina orain egoera azkenekotan da eta azken bultzada behar dugu», aitortu du larrituta bere osaba alegiarrak. Euskal Herriko, Madrilgo eta Bartzelonako Abokatuek Eskolak, bai eta Fair Trials Abroad erakunde britaniarrak bat egin dute gazte euskaldunak jasotako epaiketa gutxieneko bermeak apurtzen dituela baieztatzerakoan.

Hori dela eta, *Amicus Curiae* izeneko dokumentua bidali dute Filipinetako Epaitegi Gorenara, non argi azaltzen den lege filipinarrak eta nazioartekoak ere apurtu dituztela epaiketan. Baina duela gutxi jakin dutenez, hango gobernuak dokumentuak «blokeatu» egin ditu, sententziaren aurretik aintzat hartuak izan daitezkeen ekiditeko, (izan ere gobernuak ez ditu bere erruak onartu nahi), esan du akusatua osabak.

Bestalde, Larrañaga hilketa unean beste leku batean zegoela frogatzeko 35 lekukok —irakasle, lagun, ikaskide eta bestelakoak— ere web orrialdea sortu dute (www.pacolarrañaga.com). Orrialdea bisitatzeko guztiek eskutitz bat sinatzeko aukera dute Halaber,

AMICUS CURIAE

Epaketaren akatsen berri ematen duen dokumentua da, Europa eta Espainiako abokatuak sinatua

FROGAK

Pako Larrañagaren abokatuak aurkeztu zituen frogak guztiak atzera bota zituzten epaiketan zehar

ERAKUNDEAK

Bide diplomatikoak agortu behar direla eta, erakundeek presioa areagotzeko deia luzatu du familiak

Eusko Jaurilaritzako, Espainiako eta Europako hainbat ordezkari ere eskatu diote Filipinetako gobernuari sententziaren berrikusketa. «Denborak gure aurka jokatzeko du eta inoiz baino gehiago behar dugu erakundeen laguntza», azaldu du osabak.

«Epaiketa duin» baten eske

Pako Larrañagari beste sei mutilekin batera ezarri zioten heriotz-zigorra, duela urtebete; hasieran, ordea, biziarteko kartzela-zigorra ezarri zioten, duela zortzi urte, hain zuzen. Margot Osmaya —Filipinetako presidente ohiaren biloba— eta Txutxo Larrañaga Alegiako zesta-punta jokalariaen semeak «bermerik gabeko» epaiketa izan zuela argudiatu zuten eta horren aurkako mozio ezberdinak aurkeztu zituzten epailearen aurrean; guztiak ere atzera bota dituzte. Pako Larrañagak ezin izan zuen epailearen aurrean deklaratu eta ez ziren frogak onartu: 35 lekukoen testigantzak, egun horietako argazkiak, azterketen agiriak eta hegazkin agiriak, besteak beste.

Gazteak 8 urte daramatza



Pako Larrañagak, epaituaren osaba, «beldurrez» bizi du egoera. N. L.

kartzelan eta «goibel» dagoela azaldu du Larrañagak. Oraingo mozioan epaiketa «duin» bat eta bere eskubideak errespetatzea eskatzen dutela esan du

Alegiakoak. «Esperantza ez da galtzen, baina apelazioa gaizki aterako balitz, orduan errukia eskatzea baino ez zaigu gertatuko», aitortu du osabak.

BALIARRAIN ▶

Harkaitz kultur elkartearen urteko balantzea

Larunbatean 21:00etan bilduko dira Harkaitz kultur elkartearen

N. LATABURU

Urtero bezala, Harkaitz kultur elkarteari 2004. urteko balantzea eta balorazioa egiteko garaia heldu zaio. Bide batez, elkarteak 2005. urterako aukeratuko duen direktiba berria izendatzeko aprobetxatuko dute bazkideek.

Horretarako bilera antolatu dute datorren larunbatean, martxoaren 5ean hain zuzen ere, gaueko 21:00etan Harkaitz kultur elkartearen bertan.

Bileran jorratuko diren gaien zerrenda ondokoak izango da: batetik, bilerari hasiera emateko, 2004. urteko balantzea egingo da; bigarren gaia elkartearen inbertsioa izango da. Hirugarrenik, direktibak bere proposamenen berri emango du. Honen ostean, prezioen zuzenketa egingo da. Bosgarren postuan aztertuko duten gaia berogailuaren gainekoa izango da. Ondoren, festen inguruko kontuak izango dira eztabaidagai eta, azkenik, galde erreguen txanda izango da.

Gai hauen guztien azterketa burutu ostean, gaua itxiko duen ekitaldi garrantzitsuenari emango diote paso, direktiba berriaren izendapena, hain zuzen ere.

GAZTELU ▶ GIZARTEA

Kontzejuak herriari bultzadaxo bat ematea lortu du

Herriak zuen behar handia bete du Kontzejuak; harrera ona dela-eta eskerrak eman dizkie arduradunek herritarrei



Gazteluko Kontzejuko bi arduradunak. IMANOL GARCIA

INIGO TERRADILLOS

Lau hilabete igaro dira Esteban Pagola eta Maite Iburguren gazteluarrek Kontzejuaren ardura bere gain hartu zutela. Hilabete horietan egin dena eta lortu dena ikusita gustura daude biak ere, herriari falta zitzaion bultzada eman zaiola uste baitute.

Izan ere, Gazteluko Kontzeju-arako proiektuak aurkezteko ideien lehiaketa jarri zuten abian eta ostiral honetan amaituko da proiektua hauek aurkezteko epea. Hala ere, lehiakete-

tan proiektu bat aukeratu eta egin beharreko aldaketak egin bitartean Udaletik herriari bultzadaxo eskatu zituzten itxita zegoen Kontzeju zabaldu eta bertan lan egiteko.

Horrela hasi ziren asteberuetan lanean bi gazteluarrek, askotan beraiek dioten bezala herritarren laguntza ere izaten dutelarik.

Ostiral arratsaldeetan irekitzen dute eta igande gauean itxi. Taberna funtzioa betetzen du eta baita jatetxearena ere; «Gazteluko baserrietako produktuak eskaintzen saiatzen

gara; babarrunak, oilaskoa... Garaian garaikoa prestatzen dugu», azaltzen dute arduradunek.

«Herria itzalita zegoen eta jendeak behar zuen leku bat bertan bildu eta solasean aritzeko», diote bi herritarrek; «ireki zenetik, jende asko gerturatu da, arrakasta handia izan gugua», gehitzen dute.

Behar handi hori betetzeaz gain, kultur ekitaldiak egiteko lekua ere izango da Gazteluko Kontzeju. Zinema, herri afariak, musika emanaldiak, askariak, lehiaketak... denetik izango da ondorengo hilabeteetan bertan.

Hurrengo ekitaldien artean, ostiral honetan ikusgai izango den *Mi vida sin mi* pelikula aipatu behar da; izan ere martxoan emakumeek egindako zinema eskainiko baita. Bestalde, Emakumeen Eguneko afaria egingo dute eta izen-ematea Kontzejun bertan edo 943 67 18 40 edo 685 780 337 zenbakietara hots eginez egin ahalko da.

Kontzejuko bi arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei hilabete hauetan egin dieten harrera ezin hobekiegatik.

IBARRA ▶ KULTURA

Hego Polo-ko ibilaldia ikusgai Navas-en eskutik

51 egunetan gertaturikoak kontatuko ditu gaur 20:00etatik aurrera Kultur Etxean



Hego Poloan egin zuen ibilaldia orain bi urte Navas-ek. HITZA

I.TERRADILLOS

Haitzetan Raju mendi elkarteak antolatutako II. Mendi Asteak aurrera darrai eta gaurkoan bideo emanaldi interesgarria izango da ikusgai 20:00etan Benito Izagirre kultur etxean Angel Navas-en eskutik.

Hain zuten ere, orain bi urte burutu zuen Hego Polo-ko ibilaldia buruzko bideoa eta hari buruzko azalpenak izango dira gaurkoan.

Punta Arenas-etik (Txile) abiatu zen bere espedizioa Antartikara. Bertan ibilaldirako aproposa ziren elikagaiak prestatu zituzten; arrosa eta pasta eraman zituzten, batez ere, eta pisu gutxi izateko ura

kendu zieten. Behin eman beharreko guztia prestatuta Patriot-era abiatu ziren hegazkinetik, azkenean kostaraino helduz.

1.200 kilometro egin zituzten dena Hego Poloko erdigunera iritsi arte. 51 egunetan egin ahal izan zuten gizakiak jasan ditzakeen eguraldirik latzenak sufrituz.

Espedizioa 7 pertsonak osatu zuten, 2 kanadiarrek, 2 ingelesak eta 3 euskaldunek.

Honen guztiaren inguruan ariko da gaur gauean Angel Navas. Bidai honetako gertakizun bitxiak, ibilaldian ikusitakoaren inguruko hausnarketak eta bideoan ikusgai izango diren irudi ederrek osatuko dute ekitaldia.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Alegia. Erdialdean, plaza inguruan. 3 logela eta 2 bainu.

Amaroz. 80 m2-ko lurrea. 3 logela. Mandio. 669 87 19 09.

Andoain. 80 m2. 2 logela, gazteentzat aproposa. Erabat berritua. 39.000.000 pta.

Berastegi. 70.000 m2-ko lurra + borda. 27.000.000 pta.

Berrobi. 90 m2-ko etxebizitza, sukaldia, igogailua, 12 m2-ko ganbara eta garaje marrarekin. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 90 m2. 41.000.000 pta.

Hernani. Eraikuntza handia. 3 logela hari musikalarrekin. 80 m2 + 40 m2 jardinarekin. Etxe ederra. 57.000.000 pta.

Getaria. Erdialdean, hondartzatik 2 minututara. Eraberritua eta bizitzera sartzeko.

Ibarra. Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Kalefazioa. 33.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. San Ignazio kalea. 3 logela, kalefazioa, bizitzera sartzeko.

Ikaztegieta. 100 m2. Eguzkitsua. Garage itxia. Egongela haundiarekin.

Tolosa. Araba etorbidea. 100 m2, egoera ezin hobean. 5 logela, eguzkitsua, garage marrarekin, trasteroa.

Tolosa. Erdialdean. Eraikuntza berriko apartamentuak. 2 logela.

Tolosa. Foru etorbidean, leku hoberean, erabat kanpoaldera, atikoa, 85 m2 + 50 m2-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua,

trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 64.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan. 33 m2-ko txokoa, 10.000.000 pta, tarteplantan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalea. Apartamentuak bizitzera sartzeko. 1 eta 2 logela. Mandio. 669 87 19 09

Tolosa. Laskorain kalea. Egoeran ezin hobean. 2 logela, egongela, sukaldia eta jangela. Sabaia altuak. Etxebizitza handia eta gazteentzat. Disenoakoa. 45.000.000 pta.

Tolosa. P. Gorosabel. Eraikuntza berriak. 2 logela eta 2 bainuak. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Solana kalea. 40m2. 19.000.000 pta.

Tolosa. Zumalakarregi. 3 logela, igogailua, kalefazioa. 45.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. San Esteban. 90 m2. 3 logela. Kalefazioa, eguzkitsua.

35.000.000 pta. Mandio. 669871909

Tolosa. Larramendi. 75 m2. Igogailua. 2 gela, 2 bainu armario enpotratua. Kalefazioa. Igogailua eta trasteroa 12 m2.

Tolosa. Gudari Kalea. Terraza. Berritua.

Tolosaldea. Etxebizitza berriak. 2 logela. Garajea marrarekin. 35.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Zaldibia. 40 m2. Kanpokaldea. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Zegama. Eraikuntza berriak. 3 logelakoak. Kanpoaldera. 2 bainu. Terraza. 27.500.000tik aurrera.

Zizurkil. 3 logela kanpokaldea. Balkoi itxia, ganbara.

NEGOZIOAK

Ileapaindegia. Ileapaindegia alokatzeko. 90 m2. Guztiz diseinatua. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m2-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremetari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.

Tolosa. 428 m2-ko pabilioi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Erremetari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

Villabona. Lokal berria, 35 m2, sukaldetz hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Belauntza. Pabeloia 250 m2. 32.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Igor Astibia preso leitzarrak itxialdiari ekinen dio etzi

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ilbeltzean hasitako ekimenarekin bat eginez, itxialdiko zazpigarren txanda egingen du, beste 161 euskal presorekin batera

JAIONE ASTIBIA

Igor Astibia preso politiko leitzarra itxialdia egitera sartuko da etzi, larunbata, martxoak 5, hamar egunetarako.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) ilbeltzean hasi zen itxialdiekin: 10 egunekoak, eta aldiko Euskal Herrian bertako, nahiz Espainian eta Frantziara dauden kartzela jakinetako euskal presoek txandak egingez, daramate aurrera ekimena. Modu horretan, hain zuzen ere beraien «izaera politikoa» errekonozitu eta beste «eragile politiko» modura har daitezkeen aldarrikatzen dute, «Euskal Herriratztea» eskatuz batera.

Itxialdia egiten ari diren bitartean, presoek uko egiten diote zeldetatik ateratzeari, eta ez dira deustarako ateratzen bertatik. Itxialdien txanda guztiak bukatutakoan, gainera, bere garaian, ekimen honen jakinarazpena egin zutenean adierazi zuten, hilaren 16ean hasi eta Aberri Eguna arterainokoa gose greba burutuko du EPPK osoak, dauden lekuan daudela.



Ostiralez egin zuten EPPKarekiko elkartzunezko giza-katea. J.ASTIBIA

Horrela, bada, larunbatean hasiko dute itxialdien zazpigarren eta azken txanda, eta bertan parte hartzeko gelditzen diren 22 kartzelatan (Hego Euskal Herriko laurak ere tartean) espetxeratutako 162 euskal preso politikoko burutuko dute protestaldia. Horien artean dago, iazko azaroz geroztik Nabalcarneroko (Espainia) kartzelan preso dagoen Igor Astibia leitzarra ere. Honek EPPK egiten ari den borroka ekimenarekin bat egin eta, etzi hasita hamar egunez, 16a arte beraz, ez da zeldatik aterako.

«Egoerarik latzenetan ere beraien eskubideen alde borrokan ari direnei elkartzuna adierazteko asmoz», hala dio esku-orriari, Leitzan ere hainbat ekitaldi antolatuko dituzte, jakitera eman dutenez. Besteak beste, lehendabizikoa gaur bertan egingen ere: «EPPK-aren borrokaldiraren helburuak, txapeo eta gose grebaren nondik norakoak eta martxoko plangintza» gai izanik batzarra deitu dute eta herritarrei, honetakoan ez ezik, deituko dituzten bestelako elkarretaratzetan ere parte hartzeko eskatu.

DEIALDIAK ▶

MARTXOAK 3, OSTEGUNA

20:30ean. Udaletxeko gelan, batzarra.

MARTXOAK 5, LARUNBATA

Hiriburuetan.
Manifestazioak.

MARTXOAK 13, IGANDEA

13:00etan. Manifestazioa, plazatik abiatuta.

MARTXOAK 16, ASTEAZKENA

20:00etan. Kartelada mugikorra.

MARTXOAK 25, OSTIRALA

20:00etan. Elkarretaratzeta, kale nagusian.

Bestalde, 19an Fleury-Merogis-eko (Frantzia) espetxera egin asmo duten martxarako izena Torrea tabernan eman behar dela ere ohartarazi dute.

LEITZA ▶ EUSKARA

Korrikari ongietorria egiteko, herri afaria egingen dute aurretik

Martxoaren 13ko goizaldean igaroko da Leitzatik, Kaxetatik Uitz alderantzko bidean

J. ASTIBIA

Martxoaren 12tik 13rako gauean igaroko da Korrika 14-a Leitzatik, goizaldean 3:45 aldera. Horri animoz eta indartsu ekiteko aurretik herri afaria antolatuko du Euskara Batzordeak.

Afaria larunbatean bertan izanen da, 21:30ean, Torrean: entsalada nahasia, frijituak, koxkorra saltsan patata frijituarekin eta jogurt-krema postrearekin. Hau guztiak ongi asentatzeko, kafea eta koparekin

bukatuko dute otordua. 20 euroren truke eskura daitezke bertara joateko txartelak, Torrean bertan, martxoaren 10a, osteguna, baino lehen.

Jandakoa eta edandakoa erretzeko bidea izanen da ondoren, beraz, nahi izanez gero, goizalde horretan bertan, 3:15ak aldera iritsiko baita Kaxetara Korrika 14a eta handik hasi eta, aurrera behera eta gero gora, Uitz alderaino laisterako. Hau guztiak ongi asentatzeko aukera paregabea izanen da.

LEITZA ▶ KULTURA

Bi leitzarrak ez doaz Lakuntzako finalera

Elosegik eta Riañok Nafarroako Bertso Txapelketako saioak bukatu dituzte

J. ASTIBIA

Migel Mari Elosegi eta Diego Riaño bertsolari leitzarrek bukatu dute Nafarroako Bertso Txapelketako aurtengo edizioako ibilbidea.

Iruritan jokatu zen 3. finalerako saioa eta azkena, eta oro har saioetan lortutako puntuaketak kontutan hartuta, finalerako zortzi txartelen jabeen izenak erabaki ziren: Arozena, Zelaieta eta Silveira, saio bakoitzeko hoberenak izateagatik; Legarreta, Zubietta, Ibarra, Barberena eta Lo-

pez, hurrengo punturik gehien eskuratutakoak.

Nabarmentzekoa da hala ere, Riañok eta Elosegik txapelketa honetan egindako lana. Biek hala biezta, aurreneko aldia zen sariketa garrantzitsuan parte hartzen zutela eta urduritasunekin eta guzti, erakustaldi dotore asko eskaini zuten Goizuetako saioan. Eta orohar, esaterako Elosegik Elizagoienekin haina puntu eskuratu ditu; eta Riaño, berriz, Estangaren aurretik gelditu da. Beraz, zorian-tzekoa da bi hauen lana.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzua: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 670 128
Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria eta tabernaria.
Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 682 154.

ALOKAIRUAN

Garaje itxia. lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 3a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aizua, Albitua, Añeta, Alkiza, Alzo, Amadeita, Aneto, Anso, Balamain, Balaranta, Berastegi, Berrobi, Etxebarri, Herrialde, Ibarra, Itzalegi, Iturza, Lertxundi, Leizola, Lertxundi, Oñeta, Tolosa, Villabona, Zuzuki
besterik: Leizaldeko Eskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauraritzak.
Kultura Salla

EUSKO JAUARRITZAK
KULTURA SALLA

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

07

hotzena

04



goizez



arratsaldez



BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALAREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Batasunaren bilera udaletxean 19:00etan. Gaiak: kokapen orokorra eta apirilaren 17ko hauteskundeak.

Anoeta-Irura. Marboaren 8an, Emakumeen Eguna, udalek xake erakustaldia antolatu dute helduentzat Irurako Gazte Alaiak elkartean, 17:00etik 19:00etara. Izen ematea marboaren 7a arte.

Amezketeta. Ugarteko elkartean bilera ugartear guztientzat 20:30ean.

Elduain. Tutorearen bisita izango da KZgunean 9:00etatik 13:00etara.

Ibarra. II. Mendi Astean, Hego-Poloko ibilaldiko eskainiko du Angel Navasek 20:00etan Kultur Etxean.

Irura. Udalak familia ugarietzako IBI kuotako laguntzak eskatzeko epea zabalik du marboaren 18 arte udaletxean.

Leizta. Presoen inguruko batzarra udaletxean 20:30ean.

Tolosa. Eskualdeko Korrika Batzordearen bilera 20:00etan AEK-Arramelen.

ERAKUSKETAK

Ibarra. II. Mendi Astearen baitan mendiko argazkiak Kultur Etxean.

Tolosa. Carmelo Ortiz de Elguea. Aranburu Jauregian.

Mendira argazkien eskutik

VILLABONA ▶ Gorka Eguren billabonatarrek mendian ateratako argazkiak ditu ikusgai Maxola tabernan hilaren erdira arte



Gorka Eguren, atzean erakusketako argazki batzuku dituela. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Maxola tabernan erakusketa berri bat jarri dute. Oraingoan argazkiez osatuta dago, mendiak protagonista diren argazkiez. Gorka Egurenrek egindakoak

dira: «Mikeli, tabernako jabea-ri, argazkiak erakutsi nizkion eta berak proposatu zidan erakusketa bat egitea». Arrebaren ezagutza teknikoak baliatuz, argazkiak handitu ahal izan ditu eta dozena bat baino gehiago ikusi daitezke Maxola

tabernako horma berde eta lar-
ranjetan.

Eguren mendizalea da eta askotan egiten ditu irteerak. Beti kamera eramateko ohitura du mendira joaten denean. «Denetatik ateratzen dut», azaltzen du argazkilariak. Izan

ere, argazkietan paisaiak, la-
kuak, gailurrak, mendilerroak
agertzen dira. Batez ere Hues-
cako Pirinioetako mendiak
azaltzen dira argazkietan, bai-
na badira Euskal Herriko mendi-
ak ere, Anboto eta Ernio, esa-
terako.

Elurra da elementurik nagu-
siena irudietan. «Orain dugun
denboraldirako aproposak iru-
ditu zaizkit horrelako argaz-
kiak jartzea», dio Egurenrek.
«Halere, Pirinioetan ateratako-
ak, elurra egon arren, uztaile-
koak dira».

Orain bost edo sei urte otu zi-
tzaion Gorka Eguren mendiko
argazkiekin albumak osatzen
joatea, horrela ibilaldien memo-
ria bisuala osatzen joateko.
Orain, esperientzia berria izan
da bere argazkiak taberna ba-
tean zintzilik ikustea eta ilusioa
egin dio. «Jendeak galdetu egi-
ten dizu argazkiei buruz, ea
non atera ditudan, adibidez.
Gustura jasotzen da jendearen
interese hori», azaltzen du Egu-
renek.

Mendiko argazkioi begirada
bat ematera joan nahi dutenek
marboaren erdira arte dute
aukera, ordura arte egongo
baitira ikusgai Villabonako Ma-
xola tabernan.

AGURRAK ▶



EUSKAL PRESOK BORROKAN - ELKARTASUN MEZUAK

Muxu bana Eider, Ekaitz, Minde, Iñigo eta Pello.
Zuen eskubideen aldeko borroka, denon borroka izan arte ez dugu etsiko.
Maite zaituztegu.
Ibarrara Herri Ekimena.



URTE ASKOAN

Iratxe Arregi Montoya
(Tolosa). Gaur 7 urte. Zorionak
familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Amaia Otamendi (Abaltzisketa).
Pilin-berriko neska politenari
sei muxu handi. Etxekoak

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetezuek,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!